

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Bermeoko Udala****Bermeoko tabernen XXII. Mozorro txapelketaren 2025eko deialdia. BDNS(I-identif.):814374.**

Diru-laguntza orokorrei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalen aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/814374>)

Jakitera ematen da 2025eko otsailaren 11ko 2025/590 Alkatetza Dekretuaren bitartez onartu egin dela Bermeoko tabernen XXII. mozorro txapelketaren 2025eko deialdia. Beraz, jendaurrean jarri da, dagokion iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuta.

BERMEOKO TABERNEN XXII. MOZORRO TXAPELKETAREN 2025EKO DEIALDIA**Xedea**

2025eko Bermeoko tabernen XXII. mozorro txapelketaren irabazleen aukeraketa.

Eskatzaileak

Bermeoko tabernariak.

Lehiaketaren sariak

- 1. saria: 200 euroko balioko otzara.
- 2. saria: 150 euroko balioko otzara.
- 3. saria: 100 euroko balioko otzara.

Otzarak delicatessen produktuekin beteta egongo dira.

Izena emateko epea

Deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik 2025eko martxoaren 3ra (14:00ak arte).

Txapelketaren eguna

2025eko martxoaren 4a

Helburuak*Balorazio irizpideak***PROZEDURA**

2025eko otsailaren 10ean Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratutako Bermeoko tabernen mozorro txapelketaren oinarrietan agertzen dira.

Bermeon, 2025eko otsailaren 12an. — Alkatea, Nadia Nemeš Shomaly